

## GOBERNU BATZARRA

2014. 10.10

**Alkatea:**

**Ibai Iriarte San Vicente**

**Zinegotziak:**

**Lore Agirre Zipitria.**

**Hasier de los Rios Soraluze**

**Rosa M. Urkola Irigoien**

**Beh. Beh. Idazkaria:**

**Karmele Contreras Goikoetxea.**

**Kontuhartzaitzako Teknikaria:**

**Paulino Alonso Eraso.**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko urriaren 10ean, goizeko 10:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

- 1.- Aurreko akta onartzea.
- 2.- Nazioarteko Lankidetzaren Udal diru-laguntzen proposamena.
- 3.- Presoen familiei diru-laguntzak emateko kriterioa.
- 4.- Udal Lankidetzaren 2014. urteko oinarrien proposamena.
- 5.- Tolosako Udala eta Tolomendi-ren arteko hitzarmena.
- 6.- Urkizu auzoko hitzarmena: eskola garraioa.
- 7.- Langunea Tolosaldea 2014: Hitzarmena Tolosako Udalaren eta Tolosaldea Garatzen S.A.aren artean, garapen ekonomikoko eta tokiko enplegua sortzeko proiektua, kudeatzeko jarduerak eskuordetzeko.
- 8.- Langunea Tolosaldea 2014: Tolosako Udala eta enpresen artean, kontratazioak egiteko hitzarmena.
- 9.- 30/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

### 1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2014ko urriaren 3an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

## **2.- Nazioarteko Lankidetzaren Udal diru-laguntzen proposamena.**

.Diru-laguntzak emateko oinarrien arabera, bi sekziotan banatzen dira:

- A sekzioa: GKE-ekin lankidetzaren programak, herrialde pobretuetako biztanleen baldintza sozio-ekonomikoak garatzera eta hobetzera bideratutako jarduerak egiteko.

- B sekzioa: Tolosan egoitza duten GKE-ek udalerrian bertan eginiko sentsibilizazio-jarduerak eta erakundeon lanari eusteko mantentze-gastuak. Aintzat hartuko dira honakoak: boluntarioak gaitzeko eta prestatzeko helburua duten ekintzak, sentsibilizazio ekimenak eta garapenerako lankidetzarekin loturiko alderdietan herritarrak prestatzeko ekimenak.

Adierazitako araubide horren arabera ematen diren laguntzez gain, Tolosako Udalak zuzenean finantziatzen ditu nazioarteko lankidetzara bideratutako beste jarduerak eta programen batzuk, aurrekontu partida berberen kontura. Hauek hitzarmen bidez tramitatuko dira.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, eta Gizarte Politikak eta Osasuna Batzordeak jaulkitutako diktamena ikusirik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

- 1) Diru-laguntzen banaketaren proposamena onartzea.
- 2) Aurrekontuan geratzen den kreditu erabilgarria, hau da, 4.160,84 €, Palestina herriari laguntzeko erabiltzea . Zehazteko nola bideratu dirulaguntza, hurrengo batzorde batean tratatuko da gaia.
- 3) Erabaki honen berri ematea aipatutako G.K.E.-ei, Kontuhartzaitzari eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

**DIRU-LAGUNTZA ZUZENAK:**

<b>G.K.E.</b>	<b>Diru-laguntzen Ordaintzeko proposamena</b>
<b>Biladi – Palestinako Kultura Zentroa</b>	1.810,25€
<b>ABAY ETIOPIA ELKARTEA</b>	- 6.000 €
<b>Garabide</b>	2.000,00€

**DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN ARABERAKO ESKABIDEAK:**

<b>G.K.E.</b>	<b>Diru-laguntzen proposamena</b>
<b>AMAROSKO AUZO ELKARTEA</b>	<b>A SEKZIOA - 12.500 €</b>
<b>GIPUZKOAKO SAHARAR KOLEKTIBOA ELKARTEA</b>	<b>B SEKZIOA – 1.100 €</b>
<b>FASFI – Jesusen Alaben Laguntza Solidariorako Fundazioa</b>	<b>A SEKZIOA - 5.714,61 €</b>
<b>ITAKA-ESKOLAPIOAK FUNDAZIOA</b>	<b>A SEKZIOA - 5.802,18 €</b>
<b>JATORKIN ELKARTEA</b>	<b>B SEKZIOA – 800 € - 2013 eta 2014 ekitaldiei dagokien dirua.</b>
<b>KOKU-YO – ELKARTASUNA ETA LANKIDETZA</b>	<b>A SEKZIOA - 7.000 €</b>  <b>B SEKZIOA – 300 € - Kontuan hartuta elkarteak Abastos Plazan udal lokaletan duela egoitza, eta ez dituela hornidura-gastuak ordaindu behar.</b>
<b>MUGEN GAINETIK</b>	<b>A SEKZIOA - 14.803,12 €</b>
<b>TOLOSALDEA SAHARAREKIN</b>	<b>A SEKZIOA - 5.000 €</b>  <b>B SEKZIOA – 1.000 €</b>

### **3.- Presoen familiei diru-laguntzak emateko baldintzak.**

Diru-laguntzen helburua da presoen familiei laguntzea, bisita egiteak dakarren gastuari aurre egiteko

Gizarte Politikak eta Osasuna batzordean teknikariak egindako txostena aztertu da. Bertan, adierazten dira haibat Batzordeetan aztertu izan diren irizpideak, hau izanik egokiena kontsideratzen dena eta, beraz, proposatzen dena : diru-laguntzak proportzionalak izango direla Tolosaren eta presoak dauden kartzeletako udalerrien arteko kilometro kopuruarekiko.

Beraz, Gizarte Politikak eta Osasuna batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Diru-laguntzak banatzeko aipatutako kriterioa onartzea.

**BIGARRENA.**- Gipuzkoatik kanpoko kartzeletan dauden presoen familiei, guztira, 3.320 €-ko diru laguntza banatzea.

**HIRUGARRENA.**- Dagokion deialdia prentsara bidaltzea.

**LAUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Gizarte Politikak eta Osasuna departamentuari.

### **4.- Udal Lankidetzaren 2014. urteko oinarrien proposamena.**

Tolosan Gizarte Politikak eta Osasun alorrean lan egiten duten talde edo entitateentzako diru laguntzak arautzeko oinarriak aurkeztu dira. Kontuan izanik Gizarte Politikak eta Osasuna Batzordeak jaulki duen diktamena, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Aipatutako oinarriak onartzea.

**BIGARRENA.**- Prozedura irekitzea

**HIRUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Gizarte Politikak eta Osasuna departamentuari.

## **5.- Tolosako Udala eta Tolomendi-ren arteko hitzarmena.**

Tolosako Udala eta Tolomendiren artean hitzarmena sinatua dago larunbateroko azoka dinamizatzeko. Dinamizazio proiektu horren baitan aurreikusia zegoen postu iraunkor baten kokapena Zerkausian. Orain, Tolomendik erabiliko du postua baserritarren produktuak bultzatzeko asmoz.

Hori horrela, jabari publikoa okupatzeagatik dagokion tasa likidatuko zaio. Kasu honetan, 9 m2 direnez, 29,25 €/eguneko kobratu behar zaio. Hala ere, duen interes publikoa kontuan hartuz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **E R A B A K I D U**

**LEHENA.-** Tolosako udala eta Tolomendi Elkartearen arteko hitzarmena onartzea xede honekin: Tolomendik Zerkausiako postu iraunkorra erabiltzea baserritarren prokukuak saltzeko asmoarekin.

**BIGARRENA.-**Tolomendi Elkarteari urte bateko subentzioa ematea, 1521 euro, hau da, jabari publikoaren erabilera pribatiboarengatik likidatutako tasaren kantitateari dagokiona. Hau 2015ko aurrekonturaren kontura izango da.

**HIRUGARRENA.-**Hitzarmena sinatzeko eta beharrezkoak izan daitezkeen gainontzeko izapideak burutzeko Alkatea ahalmentzea.

**LAUGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Tolomendi-ri eta ingurumena, garapen ekonomikoa, merkataritza eta turismoa eta Kontuhartzaitza departamentuei.

## **6.- Urkizu auzoko hitzarmena: eskola garraioa.**

URKIZU AUZOKO hainbat ikasleek ez dute iraileko eta ekaineko egun guztietan eta ikasturte osoko asteazken eta ostiraletan eskolatik bueltatzeko garraio zerbitzu publikorik.

Lehen adierazitakoaren ondorioetarako, ALURTXIKI AUZO ELKARTEAK eskaera aurkeztu du 2014/2015 ikasturteko eskola garraio zerbitzu bereziak antolatzeko proposamena Udalean, erakunde honek konpromisoa har dezan hura laguntzeko.

Udalak beharrezkotzat jotzen du eskola publikoko garraio zerbitzua bermatzea eta garraio zerbitzu berezi hauek laguntzea. Horregatik, bi aldeek hitzarmena formalizatu nahi dute, konpromiso hauek hartuz:

Tolosako Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

1.- Eskola publikorako bermatzen ez den garraio zerbitzuak laguntzea.

2.- Alur-Txiki auzo elkarteari 1.267,20 euroko dirulaguntza ematea (90 bidai x 14,08 €) auzoko ikasleei eskola garraio zerbitzuko laguntza kudeatzeko.

3.- Ordainketa bi zatitan egingo da, bata irailean (irailetik abendura arteko epean izandako gastuetarako), eta bestea ekainean (urtarriletik ekainera arteko epean izandako gastuetarako).

2014/2015 ikasturtean banaketa hau izango da:

Lehenengo ordainketa: 577,28 €

Bigarren ordainketa: 689,92 €

Zerbitzua eman den egunen arabera, gastu-ajustea ekainean egingo da.

ALUR TXIKI auzo elkarteak ikasturtean konpromiso hauek hartzen ditu:

1.- Jasotzen duen dirulaguntza eskola garraio zerbitzu berezia kudeatzeko izango da.

2.- Ikasturte hasieran, dirulaguntza jasotzeko ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dizkio Udalari:

- Onuradunen zerrenda (behin behinekoa)
- Garraio zerbitzu bereziaren antolaketa eta egutegia
- Garraio zerbitzu bereziaren aurrekontua
- Gizarte Segurantzaren eta Ogasuneko ziurtagiriak.

3.- Ikasturte bukaeran, dirulaguntza zurrizko, ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dizkio Udalari:

- Onuradunen zerrenda (behin betikoa)
- Garraio zerbitzu bereziaren antolaketa eta egutegia
- Garraio zerbitzu bereziaren fakturak
- Gastu eta diru-sarreraren likidazioa.
- Gizarte Segurantzaren eta Ogasuneko ziurtagiriak.

Gaia aztertu ondoren, eta Ingurumena, Garapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Turismoa Batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI D U**

**LEHENA.-** Onartzea Tolosako Udalaren eta Alur Txiki elkarteartean sinatu beharreko hitzarmen proposamena, hurrengo kreditu aldaketaren kontura.

**BIGARRENA.-** Hitzarmena sinatzeko eta beharrezkoak izan daitezken gainontzeko izapideak burutzeko Alkatea ahalmentzea.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Alur Txiki Elkarteari eta Kontuhartzailletza departamenduari.

**7.- Langunea Tolosaldea 2014: Hitzarmena Tolosako Udalaren eta Tolosaldea Garatzen S.A.ren artean, garapen ekonomikoko eta tokiko enplegua sortzeko proiektua, 2013-11-8ko EHAA-n aiderazten direnak, kudeatzeko jarduerak eskuordetzeko.**

Ezen Lanbide-Servicio Vasco de Empleo erakundeko Administrazio Kontseiluak hau onartu zuela, 2013 urriaren 8ko bilkuran hartutako Erabakiaren bitartez: eskualdetako enplegu-planetatik datozen tokiko enplegu-sustapeneko ekintzetarako laguntza-deialdia.

Ezen aipameneko ebazpen horren arabera, onuradunak udalerriak, mankomunitateak eta koadrilak direla, eta horretatik kanpo geratzen direla tokiko administrazio izaera juridikoa ez duten garapen agentziak.

Ezen Tolosako Udalak, kontuan harturik Tolosaldeako Lehiakortasun Plan estrategikoa eta jarraiturik 2012ko Eskualdeko Enplegu-Planari, eta 2013ko azaroaren 11n egindako partaidetza-forua ezkerre, Lanbideren aurrean aurkeztu zuela “Langunea Tolosaldean, 2014” enplegu-programa.

Ezen 2014ko apirilaren 16ko dataz Lanbideko Lan Aktibazioko Zuzendaria eman zuela ebazpen bat zeinaren bidez laguntza bat ematen baitzaio Tolosako Udalari, 2013ko azaroaren 18ko deialdiaren barruan, garapen ekonomiko eta enpleguko proiektuak garatzeko.

Ezen Tolosako Udala erakunde egokia dela bere gain hartzeko aipaturako proiektuen kudeaketa ekonomikoa 2013ko azaroaren 18ko deialdiaren arabera.

Ezen Tolosaldea Garatzen sozietate instrumental bat dela, bertan Tolosaldeko udalek parte hartzen dutelarik, eta xedea duela eskualdeko sustapen sozio-ekonomikoa babestea eta tokiko enplegua sortzeko proiektuak bultzatzea. Tolosaldea Garatzen erakunde egokia da ebazpenean aipaturako formakuntza-proiektuak koordinatzeko eta emateko lanak bere gain hartzeko.

Gaia aztertu ondoren, eta Ingurumena, Garapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Turismoa departamentuak egindako proposamena ikusirik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI D U**

**LEHENA.**- Onartzea Tolosako Udalaren eta Tolosaldea Garatzen artean sinatu beharreko hitzarmen proposamena.

**BIGARRENA.**- Hitzarmena sinatzeko eta beharrezkoak izan daitezken gainontzeko izapideak burutzeko Alkatea ahalmentzea.

**HIRUGARRENA.**-Erabaki honen berri ematea ingurumena, garapen ekonomikoa, merkataritza eta turismoa eta Kontuhartzailatza departamenduari.

### **8- Langunea Tolosaldea 2014: Tolosako Udala eta enpresen artean, kontratazioak egiteko hitzarmena.**

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak onartu zuen Enplegu Sustapeneko Tokiko Ekintzetarako Laguntza-deialdia zeina Lanbideko Administrazio Kontseiluak onartu zuen 2013ko urriaren 8an egindako bilkuran (2013ko azaroaren 18an argitaratu zen EHAOn).

Tolosako Udalak onartu zuen, 2014/1231 Alkatearen dekretuaren bitartez, Euskal Enplegu Zerbitzuak "Langunea Tolosaldean, 2014" izeneko eskualdeko enplegu-programa lortzeko egindako finantziazioa, Tolosako Udalak enplegu-proiektuak egiteagatik, kopuru honengatik: 256.440 euro.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, lankidetzan Tolosaldea Garatzen garapen agentziarekin, aurrehautaketa bat egin du lan-kontratazioko programan parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten hautagaiekin.

Tolosaldeako enpresek interesa agertu dute "Langunea Tolosaldean, 2014" programan parte hartzeko, programako partaide diren pertsonen bidez.

Gaia aztertu ondoren, eta Ingurumena, Garapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Turismoko Teknikariak egindako proposamena ikusirik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI D U**



**LEHENA.**- Onartzea Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko enpresen artean sinatu beharreko hitzarmen proposamena.

**BIGARRENA.**- Hitzarmena sinatzeko eta beharrezkoak izan daitezken gainontzeko izapideak burutzeko Alkatea ahalmentzea.

**HIRUGARRENA.**-Erabaki honen berri ematea ingurumena, garapen ekonomikoa, merkataritza eta turismoa eta Kontuhartzailtza departamenduari.

**9.- 30/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.**

Kontuhartzailtzak **30/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; **249.730,88€**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.**- **30/2014** faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailtzari.

**Eta gai zerrandatik kanpo, gai hau presazkoa deklaratu da aho batez.**

**BEDAIOKO ABADETXE IZENEKO ERAIKINAREN ZIMENTAZIOA EGONKORTZEKO EGIKARITZE PROIEKTUA. PROIEKTUA ETA OBRA KONTRATAZIOA ONARTZEA**

ESPEDIENTE ZB      B.5.2.1./2014/0056  
KONTRATUA:        Bedaioko Abadetxe etxean sendotze eta lurreztatze obrak.  
PROZEDURA:        Irekia.

Hirigintza, Herri azpiegiturak eta Auzoak Batzordeak egindako proposamena ikusirik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**Lehena.**-Onartzea Bedaioko Abadetxe etxeko sendotze eta lurreztatze obren proiektua, Arkideiak S.L.P.-k idatzia, hain zuzen ere.

**Bigarrena.**-Espedientea onartzea Bedaioko Abadetxe etxeko sendotze eta lurreztatze obren proiektuan jasotako obrak, prozedura ireki bitartez, kontratatzeke.

Lizitazio-tipoa hau da: 273.677,47 euro.

Prezio hori honelaxe dago banatuta:

226.179,73 euroko balio estimatua.

47.497,74 euro BEZa.

**Hirugarrena.**-273.677,47 euroko gastua baliatzea 0700 622.01.433.00 partidaren kargura.

**Laugarrena.**-Aipatutako espedientea presakotzat jotzea, SPKLTBren 112. artikuluan aurreikusitako ondorioekin. Izan ere etxea mugitu egin baita eta mugitzen ari da etengabe. Beraz, lehenbailehen egin behar dira sendotze lanak.

**Bosgarrena.**-Onartzea klausula administratibo partikularren plegua, aipameneko obrak kontratatzeke.

**Seigarrena.**-Adjudikatzeko prozedurari hasiera ematea eta, horretarako, lizitazioaren deia egitea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzailearen profilean.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:00etan.**

**ALKATEA**

**Beh. Beh. IDAZKARIA**